

BUENO.
HEAVY WEIGHT
Champion of Spain



PACO BUENO:

BOXEOA, BASOERDIAK ETA BESTE

MARTIN TEJERIA

1916. urtean Santxo-Enea kalean jaioa. Gurasoak ez ziren errenteriarrak. Ama hernaniarra zuen eta aita berriz Valladolidekoa. Donostian ezkondu ziren eta Biteri kalean, Clavé jostundegiaren aldameneko etxean, garai hartako kafe bat zabaldu zuten, "Café La Paz" zeritzana.

Txikitik "kanarietako" eskolan ibili zen eta handik fraileletara. Trinchera, Touring, Rapid, Estrella eta txiki haien gainetik Euskalduna nagusi zen garai hartan futbolearen ere egin zuen zerbait, baina boxeoa tiratzen zion.

Hiru titulutan txapeldun izana: erdi-pisu, erdi-astun eta astuna. Baina boxeolari bezala, gerrak lehenbizi eta politikarekin zerikusiren bat bazuten mila traba eta eragozpenek, bere bizimoldea pikutara bidali zuten nolabait.

Clay eta Joe Louis gustatu izan zaizkio asko, baina sokazko laualdekoaren gainean, goren-gorenean, beti Jack Dempsey-ren izena ipintzen dizu, bere ustez munduan izan den boxealaririk bikainena.

Hau da Frantzizko Bueno Mujika, Paco Bueno, gaur egun. Oso mutikotan boxealaria izan nahi zuen 65 urteko gizona; seme biak rugbyzaleak irten zaizkio gainera. Atzoko eta gaurko kontuak gora-behera, Donostiako Kale Nagusian, Zaharrean, kirolzaleak ondo jakin izan du beti tragoskaren aitzakiz berriketan non ibili.

—Zaletasun hori nondik?

—Ba, ez dakit. Ume nintzela borrokatzea gustatzen zitzaidan eta "Renteria" aldizkari batean adibidez, Madalen jaietan, gogoratzen naiz bakoitzak bere gustoko zuen jantzia eman zigutela aukeran, erretratoa egiteko. Ni boxeolari

itxuraz azaldu nintzen eta Ganborena berriz pilotari jantzi-tan... Hura pilotaria izango zen gero eta ni boxealaria.

—Eta hasi? Nola hasi zinen?

—Gimnasia joateko zaletasun handia nuen eta Cobreros pintorearen seme bati ikaragarri gustatzen zitzaion boxeo. Harekin eta beste batzuekin. Agirre, boxeal-aria izan zena, eta beste lagun batzu. 1931. urtean kafea itxi eta Donostiara aldatu ginen bizitzera. 1933-36 urte inguru horietan amateur izan nintzen. Gerra etorri zen arte.

—Gerra dator eta zer egiten duzu?

—Kanpora joateko aukera eskaini zidaten, beste kirolza-le askori bezala, baina hemen geratu nintzen. Gerra hasi eta hirugarren egunean buruan balaz zauritu ninduten Alda-mar kalean bertan. Gero “Larrañaga” batallioan ibili nintzen Asturiasera jo arte. Handik itsasora; “Tritonia” izena zuen bou batek hatzematzen gaitu eta langile batallioan eduki ninduten preso Bizkaian, Lamiakon. Han ezagutu nuen Carmen nere emaztea. Boxeolari batek, eta edozein kirolzalek berdin, ondo zaindu behar du gorputza, janariak etabar. Baina han pasa genituen gose eta beharrak pentsa zenbateraino izorratu ninduten...

—Bai, noski. Aizu, etxekoek kontatu didatenez, zuen kae hartan “animadorak” eta guzti izaten omen zenituzten...

—Bai, artistak izaten genituen, kanpotik etortzen ziren artista, kanzonetista, dantzariak eta horrela. Orduan pianista baten laguntzaz beren kupleak eta garai hartako doinuak abesten zituzten. Gaur egun rock and rolla jotzen den moduan? Ba, berdin.

—Gerra aurrean txapeldun izan zinen, ezta?

—Bai, gerra aurrean Espainiako txapeldun izan nintzen 33an; erdi-pisuko kanpeoi. Orduan 17 urte nituen eta valentziar bati irabazi nion Bartzelonan, “Anaya” izeneko bati. 34ean berriz, madrildar batek kendu zidan titulua. Baina urrengo urtean berriro eskuratu nuen Valentzian.

—Orduan amateur bezala horiek al dira irabazi dituzun titulak?

—Bai, amateur gisa hirutik bitan atera dut. Bigarren hortan, 1934. urtean, galdu banuen besteak beste behatza hautsita neukalako izan zen. Bestetik, orain preolinpiada egiten den modura, gerra baino lehen preolinpikoa ospatzen zen. Zenbait naziotako txapeldunen aurka borrokatu eta italiar-arekin hainbanapean (match-nulo) geratu nintzen. Roger Michelot frantsesak, munduko txapelduna zenak, puntuz irabazi zidan. Gainontzekoak neuk atera nituen. Austria, Belgika, Suitza, Alemania eta Rumaniakoari irabazi egin nien. Guztiori 1935ean.

—Gerrako ibilerak aipatu ditugu. Gerraondan norekin borrokatzen zara?

—Gerraondan Bilbon hasi nintzen berriro 1940. urtean, oraindik preso nengoela. Piskat entrenatzen utzi zidaten eta Bilbon bertan Torrados delako madrildar bati irabazi nion. Bigarrena Mendieta bizkaitarrari irabazi, gero Quincoces. Erdi amateur bezala aritzen nintzen orduan. Quincocesi irabazi ondoren Donostiara etorri eta Alcaláren aurka egin nuen. Alcalá Espainiako txapelduna zen. Urumea pilotalekuan K.O. utzi nuen hiru edo laugarren asaltoan.

Urte berean (1941) kitea egin zidan Bartzelonan baina txapeldun jarraitu nintzen, berriro K.O. utzi nuen eta.

—Zure azken borroka noiz egin zenuen?

—Aljer-en egin nuen azkena 1950ean, Abenduan, frantsesa zen Europako kanpeoiaren kontra. Albert Ivel zuen izena eta galdu egin nuen. Zortzigarren asaltoan gerarazi nuen borrokaldia.

—Zein izan da zure areriorik, zure kontrakorik ospetsue-na?

—Luigi Mussina italiarra izan da famatuena. Madrideko Recoletos pilotalekuan ihardun genuen. Hura Europako erdi-astunen txapelduna zen eta puntuz irabazi nion.

Gero borroka gogorak bezala, nere ustez Arzeniega, Zubiaga, Ignazio Ara aragoitarra...

—Eta beste deporterik egin al duzu?

—Bai, boxeolari izan baino lehen futboleko aritzen nintzen Erreterian, Touringen. Lagun-Artea zelaian aritzen ginen, Alcoholerako hortan. Gero Groseko Espainolean ere bai. Garai honetan Espainiako txapeldun nintzen jadanik boxeoaren barruan eta Realak beraiekin jokatzeari nahi zuten, baina Groseko taldean lagunarteko giro hobea zegoen. Bartzelonako Espainola ere nere atzetik ibili zen, baina boxeoari ekin nion.

—Zein izan da zure ustez munduko boxealaririk onena?

—Pisuak aipatzekotan, neretzat onena Dempsey iparramerikarra zalantzarik gabe. Zortzi edo bederatzi urtez munduko kanpeoi izana da. Aspaldidanik munduan ez da horrelako boxealaria sortu. Haren ondotik Joe Louis, orain berri-ro hil dena.

Dena dela, boxeoaz hitzegiten dugunean, ez dakit zergatik baina beti pisu-astunak aipatzen dira. Beste sailetan ere paregabea jendea izan da. Hor daude Robinson, Armstrong... Gure artean Angel Felipe erreteriarra aipatu nahi nuke hemen, neretzat boxeolari handia izan zena.

Famatuengana itzuliz Cassius Clay ere asko gustatu izan zait, harrigarria izan dela esango nuke. Baina onena zein izan den galdetzen didatenean, beti Dempsey jartzen dut aurretik. Joe Louis berriz, Clay bezainbat edo gehiago. Neretzat Joe Louisek osotasun handia zeukan, distantzia erdiaren gizona zela esango nizuke. Distantzia erdi horretan boxeatzea oso zaila da. Fenomeno bat izan behar duzu berak egiten zuena egiteko.

—Zaila al da orduan horrela boxeatzea?

—Bai, ez duzu kontrakoaren albo-alboan jarri behar, askotan ikusten den bezala bi gorputzak ia itsatsita, elkarren gain. Oso urruti ere ez. Horregatik distantzia erdi hori mantentzen egin behar dituzu ahaleginak. Berrogei berrogeita-mar zentimetroko tartea mantendu behar da.

—Zuk horrela egiten al zenuen?

—Nere denbora guztian distantzia erdira boxeatu izan dut. Ni jotzea nahiko zaila zen eta hori gehienbat gerria oso arina neukalako. Gerri joko azkarrekoa nintzen. Baina gerriarekin boxeatzeaz gain, kontutan eduki behar da bizkargainarekin egiten den joko ere. Gerria eta bizkargaina, bien arteko joko lortu behar du boxeolari ona izatera iritsi nahi duenak.

Boxeoan dena den hiru era daude iharduteko: elkarren gain, distantzia erdia eta distantzia luzea.

—Gogorra izango da boxeoaren mundua, ez?

—Boxeoaren mundua ez da gogorra bakarrik, zakarra eta nekeza ere bai. Borondate handia, ikaragarria behar da. Gaur egun hasten diren gazte asko eta asko nola jokatu behar den jakin gabe ibili ohi dira.

—Azpijokoak ere izango dira giro horretan.

—Azpijoko, iruzur eta oztopoak... behar baino gehiago, asetzeko moduan. Neri, horrelakoak egiteaz aparte, ez dakit noaino ari izan zaizkidan okerrean, zatarkeriaz eta, kalte egiten. Esango nuke lurra bera ere kendu izan didatela oinpetik, porrot egin nezan.

—Zer adibidez?

—Besteak beste, gerra bukatu ondoren hirutik bitan ukatzen zidaten kanpora joateko baimena. Madridera jira eta buelta egin behar izaten nuen Federakuntzara, beti baimena eske. Atzerrian jokatzeko nituen borrokaldi askoren aukera galdu nuen horrela. Argentinara joaten utzi zidaten behin, 1942. urtea zela uste dut. Nik hemengo enpresaren kontratua neraman eta Buenos Airesen hilabete egin nuela, hara non esaten didate kontratu harek ez zuela balio. Astunekin aritu beharko nuela eta ez nere mailako erdiastunekin. Txapeldunak atera nahi zituzten nere bizkar.

Gainera Europan gerra zegoen eta haiek uste zuten ez nuela atzera etortzeko gogorik izango, Europara itzultzeko asmorik. Hiru hilabete luzez eduki ninduten han, denbora alferrik galtzen... Honelako amaika egin zidaten.

—Errenteriako garai haietako giroaz zer duzu gogoan?

—Neretzat etxeko kafetegiak izaten zuen giroaz aparte, Casa Mateo, Guria bere jardinarekin, hiltoki eta alondegizaharren ondoan zegoena, Elizetxea ostatua, Versalles taberna... Zumardi eder hartan Madalen jaietan kafe eta edari saltokia jartzen genuen. Zumardi hura, zuhaitz haiekin, oso ederra zen neretzat.

—Eta bukatzeko. Borrokaldirik ez al duzu egin Errenterian?

—Bai, gutxienez bi bider, baina erakusketa moduan Ramón Martizekin. Bata pilotalekuan eta bestea Salón Victorian. Gauza haiek hospitalaren alde dirua ateratzeko izaten ziren.

Elkarrizketa honetan, kirolaz ari garenean batez ere, Paco Bueno beti gerra aurreko urteetara joaten zaigu. 1934-35 urteetan adibidez, Gipuzkoano boxealari taldeak zeukan indar handiaz oroitzen da. Prudencio Martinez, Alejandro Lizarbe eta bera Espainiako txapeldun ziren urteak. Bere ustez, Gipuzkoak bakarrik Europako edozein talderekin egin zezakeen borroka urte haietan. Baina beti gerra azaltzen da mahai gainera.

Kafe hartzea nahiko luzatu zaigu gaur. Tabernan dozerdi bat lagun besterik ez dago oraindik, baina laster hasiko da ilunabarreko dantza. Ekainak ekarri digun sargoria dela eta, zuritoek ardoak baino martxa haundiagoa daramate gaurkoan. Joe Louisen balentriak berrikeraren bizigarri gertatu dira azken aste hauetan. Hor uzten dugu Paco Bueno, familia eta lagun artean, Errenteriako ezagunik sekula falta ez den giroan.

Paco Buenoren tabernan bisita berezia Paulino Uzkudun dugu hor desafioka datorren «amerikano» gogorra.

